

Iturri garbien eskutan dago planetaren etorkizuna

Eskuragarri ditugun datu guztien arabera, energia berriztagarri edo garbien garapena geldieztina da eta, beraz, munduko energiaren etorkizuna energia iturri garbi horien eskutan dago, planeta berotzearen kontrako borrokan ere lagunduko duten iturrien eskutan.

DANIEL UDALAITZ

MUNDUKO ETORKIZUN energetikoa energia berriztagarri edo garbietan dago. Horixe geratu zen agerian joan den ekainean Barakaldoko BECen egin zen energia iturri berriztagarriari buruzko munduko foroan. Indar eolikoa, eguzki energia, fotovoltaikoa, biomasa... energia eskuratzeko modu berri horiek planetaren berotze globalaren aurkako borrokan lagunduko dute. 1850etik munduko biztanleria lau eta erdi biderkatu da, eta behar energetikoa, 80 aldiz. Egoera berri horrek, beste ingurumen arazo batzuek gain, klimaren aldaketa azkartzen duten berotegi efektuko milioika gas tona igortzea dakar.

Erregai fosilekiko menpekotasuna (petrolio, ikatza eta abar) oso handia da,

egungo energia globalaren %80 ematen baitute, eta 2050ean oraindik, menpekotasuna %55ekoa izango dela aurreikusten da. Hala, munduko enpresa eta herrialde nagusiak energia berriztagarriak ikertzeko eta garatzeko apustua egiten hasi dira. Esaterako, Abu Dhabik, urtean ehun milioi tona petrolio inguru ekoizten duen herrialde arabiarrak, energia berriztagarrien ikerketa sustatzea erabaki du.

Europako araudi berriak estatu kideak behartzen ditu, kasu askotan, inbertsioak hirukoiztera

Testuinguru honetan, komeni gogoraraztea joan den urteko uztailan petrolioaren prezioaren igotzeak mundu osoa dar-dar batean jarri zuela, upela 147,5 dolarretara iritsi baitzen, gero krisiaren ondorioz prezioa amildu arren. Dena den, prezioaren jaitsierak joera hori alda dezake munduko ekonomia leheneratzen hasten bada. Izan ere, upelaren prezioa poliki-poliki igotzen hasi da. Ekainean upeleko 60 dolarretara iritsi zen, azken sei hilabetetako preziorik altuena. Petrolioaren prezioaren goranzko joera eta nazioarteko ekonomia suspertzeak petrolioaren kotizazioa berri-





Parkeak instalatzen nahiz energia ekoizten duten enpresek toki gailena dute munduan eta, hain zuzen, horien artean bi euskal enpresa (Sener eta Gamesa) eta jatorri nafarra duen enpresa espainiar bat (Acciona) daude.

ro izugarri igo dezakeen arriskua kontuan hartuta, energia berriztagarrien aldeko apustuak ez du garrantzirik galdu.

Europaren planak

Europako Parlamentuak araudi anbiziotsua onartu du berriki eta, aditu guztien arabera, araudi horrek EB berotze globalaren aurkako borrokaren buruan jarri eta energia berdearen negozioa sendotzen du.

Plan horri 20/20/20 deritza, eta 2020. urtean EBk konpromiso hauek betetzea du xede: karbono dioxido (CO2) igorpenak %20 murriztea, energia eraginkortasuna beste %20 hobetzea, eta EBn kontsumitzen den %20 energia iturri berriztagarrietatik eskuratzea. Une horretan %7a doi-doi gaintitzen dute iturri berriztagarriek.

Zantzu guztien arabera, EBk serio hartu du arazoa, datorren

urtetik aurrera estatu kide bakoitzak onartu behar dituen planetan esku hartzeko eskubidea ere eskuratu baitu, plan horiek helburuak lortzeko adina sendoak ez direla baderitza. Testuinguru horretan, Europan hainbat enpresa garrantzitsuk dagoeneko energia berriztagarrien alorrean bidea zabaldu eta landu duela nabarmendu behar da.

Parkeak instalatzen nahiz energia ekoizten duten enpresa horiek

Energia berriztagarri nagusienak

Eolikoa:

Haizeak sortutako energia da. Aerosorgailuek aire korranteetako energia, indar elektriko bihurtzen dute.

Fotovoltaikoa:

Gailu erdieroaleetan eguzki erradiozioak eragiten duen erreakzioaren bidez lortzen da energia.

Bero energia:

Energia ispiluen bidez kontzentratzen da sistema honekin, turbina bat mugitzeko adina lurrin ekoizteko.

Biomasa:

Energia hondakinetatik eta landareetatik lortzen da, etanol bihurtuz nahiz errekontzaren bidez.

toki gailena dute munduan eta, hain zuzen, horien artean bi euskal enpresa (Sener eta Gamesa) eta enpresa espainiar bat (Acciona) daude, beste enpresa alemaniar batzuek gain. Sener ingeniari taldea eta Torresol Energy munduko lehen postuetan daude kontzentrazio bidezko eguzki energiari dago-kionez. Gamesak, aerosorgailuen ekoizpenean munduko liderrak, "energi-kultura"ren aldeko apustua egin du, hau da, energiaren alorrean baliabide naturalak eta ahalmen zientifiko eta teknikoak kudeatzeko moduan iraultza kulturala bultzatzeko apustua. Azkenik, aurrekari nafarrak dituen Acciona enpresak 6.037 MW energia eoliko jarri ditu mundu osoan barrena eta aurten 7.500 MW baino gehiago ekoiztuko ditu 14 herrialdeetako 260 parketan.

10.000 milioi euro energia eolikoan

Europako araudi berriak estatu kideak plan zehatzak ezartzera behartzen ditu, kasu askotan inbertsioak hirukoizteko eta, hala, kontinentearen helburuak erdiesteko. Espainiako Estatuan, esaterako, dagoeneko proiektu zehatzak daude 10.000 milioi euro inguru itsas parke eolikoetan inbertitzeko. Itsasoko energia eolikoak ustiatzea ezinbestekoa da EBk 2020rako eskatzen duen %20ra iristeko. Euskal Herrian, Nafarroak toki gailena

LARRUN hilabetekaria energia berriztagarriez aurki

Urriko LARRUN aldizkaria, bi aste barru, Nafarroako eta EAeko energia berriztagarrien garapenez eta etorkizunaz izango da. Onintza Irureta ARGIAko kazetariak gidatutako mahai-inguruan, Alejandro Arizkun (NUPEko irakaslea), Gorka Bueno (EHUko irakaslea) eta Javier Marqués-ek (Energiaren Euskal Erakundeko energia berriztagarrietarako zuzendaria) orain Hego Euskal Herrian abian diren energia berriztagarriei errepassoa eman die, bataren eta bestearen abantailak eta desabantailak azalduz. Orriotako baikortasunik ez diegu somatu. Batetik, berriztagarriak garatzeko EAeren ezaugarri geografiko eta demografikoak aipatu dituzte. Bestetik, berriztagarriak erregai fosilen ordezkotzat izango direla burutik kentzeko esan digute, oraingo energia kontsumo erritmoari heltzerik ez dagoelako.

du energia berriztagarrien ekoizpenean, eta 2010ean energia berriztagarrien bidez independentzia energetikoa lortuko duela aurreikusten da, astekari honetan adierazi izan dugunez. EAEn, oraingoz, aurrei-

Euskal Herrian, Nafarroak toki gailena du energia berriztagarrien ekoizpenean eta 2010ean independentzia energetikoa lortuko duela aurreikusten da. EAEn ezin izan dira eraiki aurreikusitako parke eoliko guztiak

kusitako parke eolikoaren proiektu guztiak ezin izan dira gauzatu. Hala ere, Araban Mugarri Plana garatu nahi da, epe ertainean lurralde horrek kontsumitzen duen %35 iturri berriztagarrietatik lortzeko asmoz.

400.000 lanpostu Europan

Energia berriztagarrien sektore berri hau, etekinak lortzeaz gain, erritmo onean ari da enplegua sortzen. Europan sektoreak dagoeneko 400.000 lanpostu sortu ditu, zuzenak nahiz zeharkakoak. Horietatik 145.000 inguru azpi-sektore eolikoari lotutakoak dira, azpi-sektore hori

zabalduea baita oraingoz kontinente zaharrenean. Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan, dagoeneko 70.000 pertsonen zuzenean egiten dute lan energia berriztagarrien sektorean, eta beste 100.000 ari dira negozio berde honekin zerikusia duten enpresetan.

Europar Batasunaren datuen arabera, 2007an sektoreko enpresa gehienek 450.000 milioi euro fakturatu zituzten guztira eta horietatik 100.000 energia fotovoltaikoari esker jaso ziren. Alemania eta Espainiako Estatua potentzia handiak dira energia fotovoltaikoan eta eolikoan. 2007an EBko guztizko energia kontsumoaren %7,54 energia garbi horien bidez lortu zen. Espainiako Estatuan egoera zertxobait hobea da. ■



TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000

Fresadora: 10.000 x 3.500

Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
 Eziegi Poligonoa • Zkuffaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com